

LEKUAN LEKUKO

anboto

ANTZERKIA

Anita Maravillasen 'Andereño' antzezlanak Max saria irabazi du

Portal 71 ekoiztetxeagaz sorturiko antzezlanak umeentzako edo familientzako ikuskizunik onenaren atalean irabazi du saria. Ilusio handiz jaso dute saria, lantaldeko Miren Larreak azaldu duenez / 18

ELKARTASUNA

Zisjordaniako zortzi ume palestinar Durangaldera etorriko dira uda pasatzera, lehenengoz / 5

TXIRRINDULARITZA

BIBE martxan eta juniorren lasterketan Urkiola mendatea igoko dute asteburuan / 21

MEMORIA HISTORIKOA

Cosme Ayala eta Manuel Hernáez milizianoen gorpuzkiak, familien esku / 10



Cosme Ayala milizianoaren familiako kideak, ordezkari politikoeekin. GOGORA

ERRUGBIA

Betsaide Elorrio eta Geurea, Euskal Ligako txapeldun

Emakumeen Geurea taldeak lehenengoz irabazi du / 21



ELORRIOKO UDALA



"Traña-Matienako eskola auzoko zentroa eta erreferentziazko gunea izan da"

Herri eskolak 100 urte bete ditu. Gaur arratsaldean jaialdi bat egingo dute ospatzeko. Urtean zehar ekimen gehiago egingo dute. Lan batzorde bat buru-belarri dabil mendeurreneko ospakizuna antolatzen. / 2-3

Lan batzordeko kideak eskola aurrean.

Joseba Derteano ABADIÑO

'Auzo baten oihua' izango da Traña-Matienako herri eskolaren mendeurrenako leloa. Ez da kasualitatez erabakitako goiburua. Izan ere, azken ehun urteetan auzoaren bihotzetako bat izan da eskola, hainbat belaunaldiren topagune eta erreferentzia. Milaka ikasleren abenturak, irakasleen irakaspenak eta auzo oso baten bizipenak batu ditu bere hormen artean. Orain, mendeurrena ospatzeko, oihua lau haizeetara zabalduko dute. Horretarako, urte osoko ospakizuna diseinatzen dabilta, gaur 17:00etan hasiko den jaialdiagaz abiatuko dena. Roberto Perez Ingunza Ikasleen Gurasoen Elkarteak kidea, Ikerne Gallastegi Olabarriaga irakaslea, Ines Lasuen Retolaza eskolako zuzendaria eta Xabier Agirre Bollar idazkaria eta mendeurrenako ospakizuna antolatzekeo lan batzordeko kideak dira.

Zer sentipen sortzen dizue mendeurrenak?

Ines Lasuen: Ohore handia da, eta baita erantzukizun handia ere. Jende askoren lanari esker gabilta urteurrenako ekintzak prestatzen. Eskolako ikasle izandakoen edo beste hainbat jenderen partetik sare bat sortu da eta jasotako laguntasuna aberasgarria izaten ari da.

Xabier Agirre: Opari bat da, baina baita ardura handia ere, atzetik duen guztiagaitik. Baina harrotasunez eta ilusioz hartu dugu, historia egiten gabiltzan sentipenagaz. Urteurrenak merezi duen ospakizuna antolatzea dagokigu orain. Oso pozik gaude lantaldeagaz, eskolatik kanpoko jendea ere batu delako. Laguntzeko prest daude eta interes hori sentitzea pozgarria da beti.

Roberto Perez: Hasieran beritigo apur bat sentitu nuen. Mendeurrena, alajaina! 100 urte zifra esangurtasua da. Baina aldi berean poza ere sentitu nuen, hain urteurren inportantea biziko dugulako.

Zer aurreratu daiteke gaurko ekitaldiari buruz?

I.L.: Sorpresa asko egongo da eta horiek egunean bertan deskubritzera gonbidatzen dugu jendea. Herriko hainbat elkarte parte hartuko dute. Elkarteetako kide asko eskolan ibilitakoa da. Ekitaldiak hainbat osagai izango du. Ondoren, umeentzako ekintzak eta erromeria egongo dira. **X.A.:** 'Auzo baten oihua' da mendeurrenako leloa. Oihu hori



Roberto Perez, Ikerne Gallastegi, Ines Lasuen eta Xabier Agirre urteurrena antolatzen ari den batzordeko kideak dira.

"Traña-Matienako eskola elkargune bat izan da eta horrela jarraitzea gura dugu"

Traña-Matienako herri eskolak 100 urte bete ditu. Gaur arratsalderako jaialdia antolatu dute eskolan. Ospakizuneko ekimenek urtebete iraungo dute

elkarteei ahotsa emanez islatzen ahalegindu gara eta elkarte guztiak prest agertu dira. Erantzuna oso ona izan da, badakitelako eskolak auzo honen nortasuna sortzen lagundu duela.

I.L.: Jaialdian mendeurrenako logo berria ere aurkeztuko dugu. Umeek sorturikoa da. Iaz logo lehiaketa egin genuen eta irabazle bi egon ziren. Logo biak batean fusionatu ditugu eta gaur erakutsiko dugu emaitza.

Ikasle ohi batzuek abesti bat egin dute mendeurrenari begira. Jaialdian estreinatuko da?

X.A.: Bai, gaur estreinatuko dugu. Batzordeko kide batek esan zuen eskolako hainbat ikasle ohigaz osaturiko talde bat zegoela Traña-Matienan, Baske Street Boys, eta eurei proposatzea erabaki genuen. Arimaz eta nortasunez betetako abestia egin dute, eta hori

xe gura genuen, eta ez adimen artifizialagaz egindako zeozer, bat ere arimarik bakoa. Gainera, abesti horregaz bideo klip bat egin da eta eskola umeek parte hartu dute bertan. Ho-

"Auzolanak bizi-bizirik jarraitzen du. Guraso elkarteak laguntza ikaragarria ematen dio eskolari"

"Auzo baten oihua da leloa. Oihu hori elkarteei ahotsa emanez islatzen saiatu gara"

rrera, komunitate osora zabaldu dugu parte hartzea.

I.L.: Indar handiko abestia da eta igartzen da eskola barrutik bizi izan duen batek sorturikoa dela. **Ospakizuna urte osora zabaldu duzue eta 2027ko ekainean beste jaialdi bat egongo da kolofoi legez.** **Ikerne Gallastegi:** Bai. Ehun urteak urte osoan ospatuko ditugu eta 2027ko ekainean jai erraldoi batez amaituko dugu. Ekimen sortaren barruan, besteak beste, eskolari buruzko dokumentala dago. Bideografik ekoiztetxea dabil lan horretan. Eskolaren ibilbidea erreparatu du, protagonista askogaz.

R.P.: Hile tematikoak antolatzea da gure asmoa, hau da, hile bakoitzean gai konkretu baten inguruko ekintzak, irteerak eta abar egitea. Oraindino forma ematea falta zaigu, baina ideiak badaude egon.

Eskolak Traña-Matienaren izaera sortzen lagundu duela diozue. Zer ekarpen egin dio eskolak auzoari?

X.A.: Auzoko zentroa eta erreferentziatzeko gunea izan da. Ume asko hemen hezi da.

I.L.: Eta elkargune bat ere izan da, eskola orduetan zein handik kanpora.

I.G.: Azken batean, eskola honetan euskaldunen seme-alabak eta Gaztela eta Leon, Extremadura eta beste hainbat tokitatik etorritakoen seme-alabak batu gara. Bai, elkargune bat izan da eta horrela jarraitzea gura dugu.

Gaur egun zelakoa da Traña-Matienako herri eskola arlo akademikoan zein handik kanpora? Zer ezaugarri azpimarratuko zenituzkete?

I.L.: Aniztasun handiko eskola da, multikulturala. Horrez gainera, etengabe berrikuntzaren eta formakuntzaren aldeko apustua egiten dabilen eskola da, metodologia eguneratuagaz. Ikasten eta lanketa berriak egiten gabilta beti. Auzolanak bizi-bizirik jarraitzen du. Guraso elkarteak laguntza ikaragarria eskaintzen dio eskolari. Ekintza asko euren laguntzari eskerrak irteten da hain ondo.

Zelan imajinatzen duzue eskola hemendik hamarkada batera edo bira?

I.G.: Komunitate sendoa duen eskola izaten jarraitzea gura nuke. Jaiotze-tasa beherantz doala kontuan hartuta, auzoko eskola edo komunitate izaera duen eskola izatera bideratuta dagoela esango nuke. Horregaitik, auzuneagaz lotura estua mantenduko duen eskola izatea garrantzitsua da.

Zergaitik joan behar dute eskola komunitateko kideek, ikasleek, ikasle ohiek, irakasleek, gurasoek... ospakizunetara?

I.L.: Denen ospakizuna izatea gura dugu. Ez da gaur egun eskolan daudenei bakarrik bideratutako zeozer. Eskolatik pasatu diren denak eskolaren parte dira, eta baita etorkizunean izango direnak ere. Eurak denak ere ospakizunera eta ekintzetara batzea gustatuko litzaiguke. Eskolak besoak zabaldu ditu denentzat. Zenbat eta parte hartze handiagoa eta zabalagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da ospakizuna. **I.G.:** Azken batean, eraikinaz eta zementoz gainera, pertsonen egiten dute eskola.

"Oztopoen gainera, Intxaurrek erreferentziazko leku izaten jakin du"

JABI AGIRRE, ALAITZ AREITIO ETA LIDE AZUETA INTXAURRE ELKARTEKO KIDEAK

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Intxaurre elkarteak 40. urteurrena beteko du ekainaren 13an. ANBOTO elkarteak hiru belaunalditako kideekin batu da taberna parean: Jabi Agirre, Alaitz Areitio eta Lide Azuetagaz.

Eta halako batean, 40 urte. Bai elkarteak, bai zuen ondoko etxearen erosketak ere.

Jabi Agirre: Etxea jaustear zegoen, azken urteetan ez zen inor bizi eta. Eta hori ikusita, akorduan daukat udalak erakina botatzeko asmoa zuela. Baina Jose Mari Bilbaok, HBko zinegotziak, halakorik ezin zela egin esan zuen. Berriztu egin behar zela, berreskuratu. Eta Bautista Uribe ere, behinola baserri honetan bizi izan zenak, horixe berori esan zuen. Azkenean, Jose Mari Bilbaok etxearen ugazabagaz kontaktatu zuen, eta etxea erostea proposatu zion. Jabeak onartu egin zuen, baldintza batez: egitura mantentzea. Eta halantxik, hamar lagun abalagaz, milioi bat pezeta baino gutxiagoan erosi genuen etxea.

Zeintzuk izan dira lau hamarkada hauetako mugarriak Intxaurren?



Jabi Agirre, Alaitz Areitio eta Lide Azueta.

Alaitz Areitio: Nik oso akorduan daukat Batasunaren ilegalizazioaren harira teiltura igo ginenekoa. Manifestazio baten ondoren bilera bat egin genuen hemen, eta barruan geundela Ertzaintzak kaleak inguratu zituen. Halako batean, sartu egingo zirela eta, baten bati atea zerratzea okurritu zitzaion. Orduan, barruan geratu ginen gu, eta poliziak kanpoan. Eta gutariko batzuk teiltura igo ziren erresistentzia keinu legez. Gau osoa eman genuen barruan. Biharamunean, banan-banan irtetea adostu genuen. Iden-

tifikatu egin gintuzten. Leku hau topaleku, militantzia eta parranda leku izan da, baina baita tentsio handiko eremu ere.

L.A.: Babesleku bat izan da, umetan Intxaurre pareko plazan jolasten nintzelako. 25. urteu-

"Kultur eskaintza indartzen gabiltza, herriari gauza berriak eskaintzeko"

LIDE AZUETA

rrena ere bizi izan nuen, oso umea nintzela. Edozein ordutan etorri eta beti topatzen zenuen baten bat. Alde horretatik, babesleku izan da.

Eta Durangorentzat zer izan da?

J.B.: Hasieran boom bat izan zen. Jende askok esku hartu du hemen. Erreferentziazko toki izan da askorentzat.

A.A.: Elkartearantz etxe zabal bat izan da beti. Ezker Abertzaleari loturiko mugimenduak egon dira hemen, baina Intxaurre beste askorentzat ere tresna baliagarria izan da momentu puntualetan.

L.A.: Gainera, azkenaldian, gauza asko aldatu dugu. Kultur eskaintza indartzen gabiltza, herriari gauza berriak eskaintzeko. Belaunaldi askotako jendea dago prest lanerako. Oztopoen gainera, Intxaurrek erreferentziazko leku izaten jakin du.

Zelan ospatuko duzue 40. urteurrena?

L.A.: Egun osoko egitaraua prestatu dugu ekainaren 13rako, umeentzat, gazteentzat zein helduentzat. Eskulan tailerra, ipuin lehiaketa eta herri bazkaria izango ditugu. Ondoren, ekitaldia eta Juntajoren animazioa. Gauean kontzertuak izango ditugu: Gar, Lukiek eta Kene.mp3. Herriko jende guztia gonbidatzen dugu jaira, belaunaldi guztiak batzeko eguna izan dadin. 40 urte ez dira egunero betetzen eta urteotako borroka hori ospatu egin behar dugu, oraindino ere hemen gaude eta.

DAFA, Indarkeria Matxistaren Unitaterako baliabide eske

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Autodefentsa Feminista Asanbladak (DAFA) baliabide gehiago eskatu du Indarkeria Matxistaren Unitatearentzat, zerbitzu horretako "lan karga" dela eta. Asanblada feministak argitu du teknikariak "bikain" egiten duela bere lana, baina zerbitzuko lan ildo biei erantzun ezinik ibiltzen dela sarri, artatzeari eta prebentzioari aldi berean ezin erantzunda. Hori dela eta, DAFAk dio lan horiek guztiak ezin dituela pertsona bakar batek egin: "Urgentziazko egoerek lehentasuna hartzen dute bestelako lanen aurrean, eta horrek zaildu egiten du lan sakonagoak egitea, batez ere prebentzioaren arloko lana behar den moduan egitea". Hori horrela, "benetako apustua" egitea eskatu diote udalari, "indarkeria matxista desagerrarazteko benetako konpromisoa" baldin badago "ezinbestekoa" delako "jatorrirra jotzea", DAFaren iritziz. "Horregaitik guztiagaitik, emakumeei akonpainamendu jarraitua eskainiko dien figura egonkor bat sortzea proposatzen dugu", esan dute. Gaur egungo "teknikariaren lanpostutik bereizitakoa".

Halaber, asanblada feministak esan du unitatetik igarotako emakumerik gehienek "bide luze eta konplexua" egin behar izaten dutela "bizitza indarkeria-egoeratik aldentuta berreraikitzea". Horrek "bulegotik harago lan egitea" eskatzen duela dio DAFAk, "aktibatutako baliabide guztien jarraipena egitea eta arlo pertsonal eta emozionalean akonpainamendua eskaintzea, besteak beste".

Afrikako kulturaz eta aniztasunaz sentsibilizatzeko asteburua Durangon

Herri bazkaria egingo dute Landako Gunean, eta askotariko animazioak eta musika emanaldiak egongo dira Andra Marian

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Afrikako kulturen erakusleho bihurtuko da asteburuan. Herrialde afrikarretako elkarteek eta udalak Afrika Eguna antolatu dute, eta kontinente horretako aniztasunaz gozatzera eta sentsibilizatzera deitu dituzte herriekideak. Jardunaldiak egunean hasi ziren eta asteburu osoan zehar egongo da jaira batzeko aukera. Gaur, barikua, Jeffrey Nku artistak (Ghana) eta Weblezz Owen Afrobeat R&B de Benin taldeak (Nigeria) kontzertua emango dute.

Emanaldiok Andra Marian izango dira, 20:30ean.

Bestalde, zapatuan egun osoko jardunaldia egingo dute. Batukada batek Andra Mariko inguruak girotu ditu 11:45ean, eta Mlomp talde senegaldarrak dantzaldia egingo du 12:30ean. Ondoren, Durango elkarte afrikarrek adierazpena irakurriko dute, eta Mlomp taldeak bigarren emanaldi egingo du gero, 13:00etan. Jarrera, 13:45ean, Andra Maritik Landako Gunera lekualdatuko dira denak, batukadagaz, 14:00etan herri bazkaria egingo da-eta han.



Afrikako herrialdeetako komunitateetako kideak eta udal ordezkariak. UDALA

Ondoren, 16:00etan, DJ Gabyren musika saioa egongo da erakustazokan. Ospakizunak amaitzeko, Andra Marira bueltatuko dira atzera ere, Mame Cheikh talde senegaldarrak dantzaldia egingo du-eta 20:30ean.

Afrika Eguna antolatu duten elkartearen artean, Mlomp, La Paz Amor Ghanako Lagunen Elkartea eta Sen Euskadi Aniztasuna Senegali Laguntzeko Elkartea daude, Durango Udalgaz batera.



DAFAren elkarretaratze bat. Dafa

"700 kilometro 37 ordutan egin genituen, ordubete bakarrik lo eginda"

Hirukote honek pasio du bizikletan ibiltzea, eta abenturak euren eguneroko ogia bihurtu dira

Maialen Zuazubiskar BERRIZ

Jon Urbietak, Kepa Astorkia eta Ander Moraira abenturazale sutsuak dira eta euren erronkak ez dira ahuntzaren gauerdiko ezula. Joan den asteburuan, esaterako, Madril eta Bartzelona lotzen dituen ultra distantziako proban parte hartu zuten. Jon Urbietak erantzun die ANBOTOren galderei.

Zer moduz joan zen asteburuko abentura?

Ondo. Preparazio handirik barik joan ginen eta proba ondo joan zen orokorrean. Bero handia izan genuen, baina gainerakoa aurreikusitako moduan joan zen.

700 kilometroko ibilbidea egin behar izan duzue. Zenbat denbora behar izan duzue?

Kepak eta biok bikoteka eman genuen izena, eta Anderrek barkakako modalitatean. Bakar-



Ezkerretik hasita, Jon Urbietak, Ander Moraira eta Kepa Astorkia.

kakoak gu baino ordu erdi lehenago irten ziren. Proba hasi baino apurtxo bat lehenago nik errobera bat zulatu nuen eta Kepa eta biok gainerakoak baino zeozer beranduago irten ginen. Beraz, apur bat aldre-

bestu egin zitzaigun irteerako une hori. Anderrek 31 ordu behar izan zituen ibilbide osoa egiteko. Kepak eta biok gehiago, 37 ordu.

Horrenbeste orduan, hartzen duzue lo egiteko tarterik?

Anderrek ez zuen lorik egin, eta guk ordubete. Parke batean geratu, eta tartetxo bat hartu genuen deskantsurako. Eta handik helmugaraino, Bartzelonaraino. Labur esanda, 700 kilometro 37 ordutan, tartean ordubeteko loalditxo eginda.

Zer ematen dizute horrelako abenturek?
Oso gogoko dugu bizikletan distantzia luzeak egitea. Hone-lako abenturak ziurgabetasunez beterikoak izaten dira, horrenbeste kilometroan ez dakizu zer gertatuko zaizun, eta horrek zirrara apur bat ere eragiten digu. Baina, tira, ez da lehenengo aldia, eta badugu esperientzia apur bat. Lehen, esaterako, bidaiatzen hasi ginenean, hoteletan geratzen ginen lo egiten, baina orain errepide bazterrean lo egiten dugu.

Uda ate joka dago. Baduzue beste erronkarik ordurako?

Transiberica proban izena emanda gaude. Abuztuan da eta Belgikan hasten da. 2.800 metroko proba da. Eginda daukagu beste urte batean. Orduan bederatzi-hamar egun behar izan genituen ibilbidea egiteko. Hori hobetzea da gure helburua.

Beñat Aguado, Berrizko EAJren alkategaia udal hauteskundeetan



Beñat Aguado.

M.Z. BERRIZ

Berrizko EAJk ohar bidez azaldu duenez, Beñat Aguado Martinez izango da 2027ko udal hauteskundeetako zerrendaburua. "Aho batez hartu dugu erabakia, gertuko hautagaitza baten aldeko apustu garbia egin dugu, begirada gazte eta konprometitua", azaldu dute. Agudok "berarengan izandako konfiantza" eskertu gura izan du. "Ilusioz, arduraz eta Berrizen alde lanean jarraitzeko gogoz nago. Lehen-tasunetariko bat berriztar gazteei etxebizitza eskuratzeko aukera erraztea izango da", esan du.

Abadiñoako Zaintza Ereduaren plana jendaurrean aurkeztuko dute

Dokumentuak zaintzen arloko lan ildoak zehazten ditu. Aurkezpena ekainaren 9an egingo dute, 18:00etan, Errota Kultur Etxean

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoako Udalak datozen urteetarako zaintzen arloko lan ildoak markatuko dituen agiria egin du: Zaintza Ereduaren Jarduera Plana. Herriaren zaintza plana elkarregaz zelari definitu da plan honen helburua, gaur egungo eta etorkizuneko beharrezanean erantzuteko, batez ere 60 urtetik gorako pertsonen beharrezanean erantzuteko. Prozesu honetan, arduradun politikoei, udaleko teknikariak, gizarte eragileak, zerbitzu publikoen kudeatzaileak eta adinekoen elkarteak parte hartu dute.

Jarduera plana Abadiñoako egoeraren azterketa zehatz batetik abiatu da. Azterketa horretan, herritarrek zelari bizi diren, zeintzuk beharrezanean dituzten, egoera soziala zelari dagoen eta egoera ekonomikoa zein den aztertu dute, besteak beste.

Bestalde, proposaturiko ereduaren ideia nagusi baten inguruan egituratzen dela nabarmendu dute. "Zaintza hurbiltasunetik gertu, pertsonen ohiko ingurunean, sare komunitarioak indartuz eta zerbitzu publikoen, herritarren eta auzokideen arteko lankidetzari bultzatuz", esan dute udaleko kideek. "Gainera, eredu hau ez da dokumentu bat bakarrik, Abadiño ulertzeko modu bat ere bada, denon artean zaintzen, laguntzen eta eraikitzen den herri bat", gaineratu du udalak. Hori horrela, ekainaren 9an 18:00etan Errotan egingo duten bilerara joateko deia egin diete herritarrei. Dokumentua azaldu eta ekarpenak jasoko dituzte bertan. Bileran Auzosare ereduaren proba pilotua martxan ipiniko dute. Bakardade egoeran bizi gura ez duten pertsonen egoera garaiak detektatzeko ekimenak Auzosare.



Berdegunea Ziarreta kaleko irteeran dago.

Apatako Udalak herriguneko lursail bat erosi eta berdegune bilakatuko du

M.Z. ATXONDO

Atxondoko Udalak erabiltzen ez zen eta txarto zegoen lursail bat erosi eta berdegune bilakatuko du Apatamonasterion, herriaren erdigunean, Ziarreta kaleko irteeran, hain zuzen ere. Lursaila herritar batena zen eta iaz udalari eskaini zion. "Herritarrek lursaila udalari eskaini eta gero, erostea erabaki genuen. Ere-mu-

hori txukundu, berdegune bilakatu eta herriari zabaltzea da gure asmoa", azaldu du Eneritz Agirre alkateak.

Orain, eremua garbitu, txukundu eta dena atontzen dabil-tza. "Gune berde bat izango da, eta bankuak ere ipiniko ditugu, bertan jesarrita egon ahal izateko. Gune garbi bat izango da", gaineratu du Atxondoko alkateak.

Mallabiko udaleku irekietan izena emateko aukera

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak 2026ko udarako aisialdi eskaintza prestatu du, herriko haur eta gazteei zuzendutako udaleku programaren bitartez. Adin tarte bakoitzera egokitutako jardueren bitartez heziketa eta elkarbizitza bultzatzea da programaren helburua, ingurunea ezagutzeko eta taldean aritzeko aukerak eskainita.

Udaleku irekiak 2014tik 2022ra bitartean jaiotako haurrei zuzenduta daude, hau da, 4tik 12 urte bitartekoei zuzenduta. Ekainaren 22tik uztailaren 17ra egingo dira udalekuak, asteleheneetik barikura, 9:30etik 13:00etara.

Bertan parte hartzeko, izena ematea ezinbestekoa izango da. Izen ematea ekainaren 12an amaituko da. "Herriko gazteak udako jarduera hauetan parte hartzeri gonbidatzen ditugu, heziketa, hartu-emanak eta esperientzia aberasgarriak uztartzen dituen eskaintza batez gozatzeko", azaldu du udalak.

Okm
batzen gaituen
distantzia



POLTSIKO
RAKO
**ABAN
TAILAK**

EGIN ZAITEZ
ANBOTOKIDE

946 816 558
DEITU ETA
EMAN IZENA!



OKM BATZEN GAITUEN DISTANTZIA

 **ANBOTOKIDE**

ESKURATU ANBOTOKIDEEK DITUZTEN **ABANTAILA GUZTIAK**

40 EURO ORDAINUTA URTEAN, LORTU ABANTAILA HAUEK GUZTIAK



HILEROKO **ZOZKETA** BEREZIAK

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2025ean, 200 anbotokidek
baino gehiagok jaso dute sari bat.



DESKONTUAK ANBOTOKO ZERBITZUETAN

Eskelak, iragarki sailkatuak,...



POLTSIKORAKO **ABANTAILAK**

Deskontuak Durangaldeko
eta Euskal Herriko hainbat
komertzio eta Euskoil gasolindegian.



ONURA FISKALAK

Errenta aitorpenean,
Anbotorena lehentasunezko
jarduera delako, **%45eko** hobaria.

Elizaldeko igerilekuak astelehenean zabalduko dituzte

J.D. ELORRIO

Elorrioren, Eleizaldeko igerilekuak udako denboraldia hasiko dute datorren astelehenean. Irailaren 4ra arte egongo dira zabalik. Udala igerilekuetako belardia txukuntzen ibili da azken hiletan. Besteak beste, drainatze sistema berriztu dute, eta horren ondoren belar berria erein dute.

Udalak egin dituzten lanen onurak nabarmendu ditu ohar batean. "Drainatze sistema berriak ura hobeto xurgatzea ekarriko du, belardiaren kontserbazioa erraztuko du eta espazioaren erabilera erosoago bihurtuko du".

Udako bonua eskuratzeko, interesdunek kiroldegira joan beharko dute izen emate orria betetzera. Eguneko sarrerak honako hauek dira: abonatu bako 18 urtetik gorakoek 6,50 euro ordaindu beharko dituzte; 3tik 18 urtera bitartekoek eta 65 urtetik gorakoek 4,50 euro. 3 urtetik beherako haurrak doan sartu daitezke.

Elorrioko artisau eta sortzaileen azokak hamarkada bat beteko du domekan

Askotariko postuez gainera, musika eta bestelako ekimenak egongo dira

J.D. ELORRIO

Eixu elkarteak antolatzen duen Urarka Azokak 10. aldia beteko du domekan. Urarka kaleko luze-zabala askotariko artisauz eta sortzailez beteko da 10:30etik 14:30era bitartean.

Sortzaileen postuetan denerik egongo da: larruzko produktuak, oihal margotuak, zeramika, ilustrazioa, egurretik eta produktu naturaletatik sorturiko dekorazioa, harriekin egindako lanak, errexinaz egindako bitxiak, kakorrazta, umeentzako arropa, eskolarako diseinuzko amantalak...

Urarka kalean dagoen plazan ekintza gehiago egongo dira. Esaterako, Elorrioko Han musika taldeak zuzeneko kontzertua joko du, 12:00etan. Horrez gainera, Brewery Land artisau garagardoa dastatu eta Mieltxo taloak jateko aukera egongo da. Umeen-tzako gunea ere egongo da, aur-



Azokak jende asko batzen du urtero. EIXU

pegi margoketaz. Eta Palestina-Elorrio mugimenduak postua ipiniko du plazatxo horretan.

Azokak ez ezik Eixu elkarteak ere 10 urte egingo ditu aurten. "Urteurrenerako programazioak

abendura arte iraungo du eta azokak emango dio hasiera", adierazi du Agurtzane Ugaldea Munitxak, Eixuko kide eta kamiseta abstraktuen Artea Soineaneko sortzaileak.

Hiru abesbatzaren kontzertua zapatuan Mañariko elizan



Kirikiño abesbatza.

J.D. MAÑARIA

Mañariko Jasokundeko Andra Mari elizak BBK Abesbatzen Kontzertuak ekimenaren barruko emanaldi bat hartuko du zapatuan, 20:00etan. Mañariko Kirikiño, Zornotzako Xuxurlariak eta Ermuko Pispillu abesbatzek parte hartuko dute.

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen ekimenak 45. aldia bete du aurten. Guztira, 56 kontzertu antolatu dituzte Bizkaiko hainbat udalerritan; tartean, Mañaritan. Koruko musika Bizkai osora zabaltzea da ekimenaren helburu nagusia.

Martxan da jaietako kartela aukeratzeko bozketa herrikoia

J.D. ELORRIO

Aurtengo Ferixa Nausikoak iragarriko dituen kartela aukeratzeko bozketa herrikoia martxan da astelehenean, Elorrioko Udalak bere sareetan iragarri duenez. Aurten ere herritarrek izango dute jasotako proposamenen artean euren gustukoena aukeratzeko aukera.

Bozketa ekainaren 12ra bitartean egongo da zabalik, eta hainbat modutara parte hartu ahal izango da: aurrez aurre, Iturri Kultur Etxean, edo udaleko webgunearen bitartez (www.elorrio.eus). Jasotako proposamenak webgunean bertan ikusi daitezke, bozketan parte hartu aurretik.

Herritarren bozketaren ondoren, epaimahaia ekainaren 16an bilduko da eta kartel irabazlea ekainaren 17an jakinaraziko dute.

Elorrioko Udalak herritarrak parte hartzera animatu gura ditu, "Ferixa Nausikoak iragarriko duen irudia denon artean aukeratzeko".

Lokalak bizileku bihurtzeko tramiteak arindu dituzte Elorrioren, ordenantza moldatuta

Joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten ordenantza moldatzea

J.D. ELORRIO

Joan zen asteko eguenean udalbatzarra egin zuten Elorrioren. Bertan, etxabeetako lokalak etxebizitza bihurtzeko indarrean dagoen ordenantzari moldaketak egitea onartu zuten. Aho batez

irten zen aurrera. Aldaketei eskerrak, esaterako, tramiteak egiten direnetik lizentzia ematen denera arteko epea "nabarmen" murriztuko da, Julene Lazkano Elorrioko alkateak azaldu duenez. Izan ere, baime-

nak emateko organoa osoko bilkura zen lehenago, baina aurrerantzean tokiko gobernu batzordeak izango du lizentzia horiek emateko eskumena. "Herritarren mesederako egin den moldaketa da eta tramite burokratikoak arintzea bilatzen du", azaldu du Lazkanok.

Elorrioko EAJk ohar batean azaldu duenez, moldaketei eskerrak "uholde-arriskuen irizpideak ere egokitu dira, orain arte euskal legeriak berak eskatutakoak baino murriztaileagoak baitziren". Oro har, moldaketak "positibotzat" jo dituzte. "Elorrioren bizi-proiektua garatu gura duten herritarrei aukerak eskaintzea ahalbidetuko du. Oztopoak kentzen dituen neurri praktikoa da, eta gaur egun hutsik dauden eta emankorrak ez diren lokalak etxebizitza bihurtzea errazten du".



Ordenantzaren moldaketak tramite burokratikoaren denbora murriztea bilatzen du.

Balmasedarako egunpasa 31 jubilatuk parte hartuko dute



Jubilatuaren lokala.

J.D. IZURTZA

Erdoitzako Ama nagusien elkarteak egunpasa antolatu du zapatarako, Balmaseda ingurua ezagutzeko. Irteerak harrera ona izan du, 31 jubilatuk eman dute izena. Goizean bisita gidatua egingo dute eta eguerdian bazkaritara batuko dira. Arratsaldean La Encartada fabrika-museoa bisitatuko dute. XIX. mendeko ehungintza-fabrika zahar batean kokatutako museoa da eta 1892tik 1992ra artilezko produktuak ekotzi zituen lantegiaren historia eta makina originalak ezagutzeko aukera ematen du.

Zenbat ezagutzen duzu Atxondo?

Parte hartu gure lehiaketan eta galderarik
gehien asmatzen dutenen artean...

Bazkari bat zotz egingo dugu
Akebaso jatetxean 🍷

EDONORK PARTE
HARTU DEZAKE!

Ekainaren 12tik 18ra

SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

EKAINEKO ZOZKETAK



Uitzamaren
produktu sorta.



Zelai Hotela
(Zumaia). Talaso saioa
eta gosaria barne duen
birentzako bonua.



Xiberu taberna
(Zornotza) bi gosari
bikoitz.



Mendexa
Abentura
Parkerako
bost sarrera bikoitz.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2 litroko
2 tarrina. (Durango)

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!**



Astelehenean Bilbon egindako ekitaldian milizianoen senideek parte hartu zuten. GOGORA

Cosme Ayala eta Manuel Hernáez milizianoen gorpuzkiak familien esku

Gudarien alabetariko bik jaso dituzte euren aiten gorpuzkiak. Ayala eta Hernáez Zornotzako hilerrian identifikatu zituzten, iaz.

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Eusko Jaurlaritzak eta Gogora elkarteak Cosme Ayala Yoldi eta Manuel Hernáez Ruidíaz milizianoen gorpuzkiak bueltatu dizkiete familiei. Gudariok Zornotzako hilerrian topatu zituzten, 2025eko uztailean, hobi komun batean. Eta aste honetan, gerran hil zituztenetik 90 urtera, haien alabek jaso dituzte aita zirenaren gorpuzkiak. Astelehenean egin zuten ekitaldia, Bilbon, Maria Jesus San Jose Justizia eta Giza Eskubi-deen sailburua, Alberto Alon-

so Gogora institutuko zuzendaria eta Zornotzako alkate Ainhoa Salterain lagun zituztela. "Beharrezkoa da iragana berreskuratzea, gerra zibileko eta frankismoko desagertuak bilatzea, inoiz utzi behar ez zuten lekura itzultzeko, hori baita, hain zuzen ere, memoria egitea", esan zuen San Jose sailburuak.

Ayala eta Hernáez milizianoak 1937ko apirillean hil ziren, Erorrioko eta Muxikako gerra-frontean, hurrenez hurren. Biak desagertutat jo zituzten, harik

eta Aranzadi zientzia elkarteak Zornotzako hobi komuna argitarara atera eta milizianoen alabek identifikazio genetikoak egitea ahalbidetu zuten arte.

Ayala nafarra zen jaiotzez, eta Barakaldon bizi zen. Ezkonduta zegoen. Alaba biren aita zen, eta laboraria ogibidez. Meabe 1 Largo Caballero batailoiko miliziano legez borrokatu zen, gaztedi sozialistari (Juventudes Socialistas Unificadas) atxikitako batailoian. 1937ko apirilaren 27an hil zen, Elorrioko gerra-frontean. Hernáez errioxarra zen jaiotzez. Bilbon bizi zen, ezkonduta zegoen eta alaba baten aita zen. Bera ere nekazaria zen. Gerran Zabalde batailoiko miliziano legez borrokatu zen, Izquierda Republicanari atxikitako batailoian. 1937ko apirilaren 20an hil zen, Muxikako frontean.

Minbiziaren Aurkako Elkarteak diru bilketa egingo du domekan



MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA

E.H. ZORNOTZA

Domeka honetan, Minbiziaren Aurkako Elkarteak kideek diru bilketa egingo dute Zornotzan, minbiziaren ikerketa indartzeko. Goizean zehar, boluntario talde bat San Migel kalean egongo da, funtsak batzen. Gizarte osoaren lankidetzeta eta inplikazioa eskatu dituzte, denen elkarlanagaz ikerketa onkologikoan aurrera egiteko. Izan ere, % 70eko biziraupena lortu gura dute 2030erako. Era berean, arreta integral gizatiarra gura dute.

San Antonio jaiak hasiko dituzte Elgezabal auzoan

E.H. ZORNOTZA

Zornotzako San Antonio auzoan bolanderekin, kanpai hotsagaz eta Gaztedi berria fanfarreagaz hasiko dituzte San Antonio jaiak, ekainaren 5ean, eta DJ Kaburregaz amaituko dute eguna. Zapatuan Miren Fernandezek eta Aitor Furundarenaren kantaldia izango dute, eta berriro ere DJ Kaburregaz borobilduko dute eguna. Domekan meza, luntxa eta umeentzako puzgarriak egingo dira. Ondoren, parrillada eta txokolata egingo dira bertarazten direnentzat. Hurrengo asteburuan ere hainbat ekitaldi izango da, ekainaren 14ra bitartean. Egitarau osoa agendaren atalean kontsultatu daiteke.

Auzo taxi zerbitzua martxan Zaldibarren, baserri auzoak eta herrigunea gerturatzen

Erabiltzaileek txartela eskatu beharko dute udaletxean. Bonuek 2,5 euro balio dute

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak auzo-taxi zerbitzua ipini du martxan, "landa eremuen eta hirigunearen arteko konexioa hobetzeko". Zerbitzua baserri auzoetan bizi diren herritarrei zuzenduta dago; hau da, Gatzagako, Goierriko, Arangurenko, Eitzagako, Sallabenteko eta Olarreagako auzotarrentzat da, baina San Andreseko bizilagunek ere erabili ahal izango dute, mugitzeko arazoak dituztenean. Zerbitzua erabili gura dutenek erabiltzaile txartela eskatu beharko dute udaletxean, eta behin hori eginda, bonuak erosi ahal izango dituzte. Txartelak 2,5 euroan ipini dituzte salgai eta gutxieneko erosketak kopurua 5 bonukoa izango da. Bidaiariak bonu horietariko bat eman beharko dio taxilariari egindako ibilbide bakoitzeko.

Eneritz Azpitarte alkateak esan duenez, "herritar guztien irisgarritasuna bermatu" gura dute egitasmoagaz. "Hori da gobernu talde honen bidea: dauden zerbitzuak indartzea, eta ez badaude, sortzea, auzo-taxiagaz egin dugun

moduan", gaineratu du. Halaber, Zaldibarko Udalak gogorarazi du auzo-taxia ipintzeko proiektua 2026ko udal aurrekontuetan adostu zutela EH Bilduk eta PSE-EEk, alderdi sozialistaren emendakin bat tarteko.



Baltasar Gomez (EAJ), Eneritz Azpitarte (EH Bildu) eta Sagrario Sanchez (PSE-EE).

Otxandioko Gaztetzak 25. urteurrena ospatuko du asteburuan

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Gazte Asanbladak egun osorako egitarauagaz ospatuko du bere 25. urteurrena, zapatuan. Aldarrikapenerako tartea ere hartuko dute. Aurre-rapen legez, txistulariek kalejira egingo dute gaur iluntzean, eta, ondoren, ekitaldia egingo dute Gaztetzean. Plazan dokumentala emango dute, 21:30ean.

Biharko, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak antolatu dituzte. Triki-poteoa egingo dute 13:30ean, eta ondoren denek elkarregaz bazkalduko dute, 14:30ean. Arratsalderako manifestazioa antolatu dute. Gero, DJ ibiltariak girotuko du jai giroa. Plazan izango diren kontzertuek borobilduko dute eguna, 22:00etan. Kiliki, Arene 6 eta Kaparrak taldeek joko dute bertan. Gero, DJ Guate arituko da. Gaztetzean Lamikizek eta Jamaiketako ipiniko dute musika.

Otxandion Indusibideko eta Ospital kaleko zorua egokituko dute

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak 30.800 euroko inbertsioa egingo du Ospital kaleko eta Indusibide errepideko zorua konpontzeko. Azken hiletan bidea "asko" hondatu da eta premiazkoa ikusi dute konpontzea, udal ordezkariak jakinarazi dutenez. Lanak gauzatzeko, trafikoa moztu behar izango dutela iragarri dute.



Ospital kalea. UDALA

Aisialdirako "ingurune inklusiboa" sortu dute Iurretako Maiztegi eskolan

A.B. IURRETA

Iurretako Maiztegi herri eskolan txintxaun berriak ipini dituzte umeak jolastu daitezkeen. Udalak jakinarazi duenez, inguru "inklusibo" eta "segurua" egokitu dute jolastokian. Umeen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzen dituzten hiru jolas berri ipini dituzte. Horretarako, 48.250 euroko inbertsioa egin dute.

Jolasgunean robinia-zura erabili dute material nagusi legez. Material horren "iraunkortasun handia, berotasun estetiko eta eskola-ingurunean era naturalean integratzeko gaitasuna" kontuan hartu dituzte, ohar batean azaldu dutenez. Gainera, jolasgunearen diseinuak "erabiltzaileen babesa lehenesten" du, udal ordezkariaren berbetan. "Amaiera leunak eta ertz biribilduak dituzte, eta naturagazko hartu-eman sensoriala sustatzen dute; horrez gainera, haurren garapenari eta ongizate emozionalari mesede egiten diete", argitu dute. Zutabe hirukoitz irisgarri bat, enborrez

osaturiko etxetxoa eta joko anitzeko dorrea ipini dituzte, txirristaduna, rokodromoduna eta oreka zirkuitua duena.

Ikasketa, jolasa eta material naturalekiko errespetua indartuko dituen "ingurune bero eta aktiboa" sortzea du helburu udalak, eta eskolarentzat "jolastoki inklusiboa sortzeko konpromisoagaz" aurrera egitea.



Maiztegi eskolako jolas berriak. UDALA

Iurretako EH Bilduk dio etxebizitza krisiari aurre egin behar zaiola

A.B. IURRETA

Iurretako Udalaren jabetzako lursailak ez saltzea, alokairuko esfortzu-indizea eguneratzea eta behe solairuko lokaletan etxebizitzak sortzeko ordenantza arautzea. EH Bilduk uste du epe laburrean hiru neurri horiek hartzea "beharrezkoa" dela etxebizitza krisiari aurre egiteko. Koalizioak gogoratu duenez, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) 510 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten du, "eta horietatik 21 bakarrik egongo lirarteke babeseko erregimenean". Gaia aztertzeke, ezohiko bilkura deituzeko eskaria erregistratu dute.

EH Bilduk dioenez, "alokairu sozialeko etxeak lehenesteko norabidean" ezin dira udalaren jabetzako lursailak saldu. Bestalde, gogoratu dute alokairuko esfortzu-indizea %26koa zela 2022an, eta eguneratu egin behar dela. Behe solairuko lokaletan etxeak egiteko ordenantza lantzeari ere beharrezkoa deritza.

San Antonio

Urkiola · 2026

Ekainak 13	Ekainak 14
San Antonio eguna	Errepetiziño domeka
Meza arduak 10:00 11:00 12:00 13:00	Meza arduak 10:00 12:00
10:00-14:00 Azoka: Ganadua eta baserriko produktuak	10:00-15:00 Azoka: Baserriko produktuak
11:00-14:00 Trikitilariak	12:45 Herri Kirolak
12:00. Ardi-moztea. Mikel Añibarro	Aitzkolariak: Hodei Ezpeleta, Malen Barrenechea, Nerea Arruti, Bihuri.
13:00. Gernikako Arbola kantuz. Iparragirre kantariaren monolitoaren ondoan	Harri jasotzaileak: Izadi Agirre
Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano eta Sestral Colina	Ingudea eta txingak: Ainhoa Larriño
	Iparraldeko jakeak: Karlos Arotzabaleta
	16:30 Erromeria
	Aiko taldea

Abadiño URKIOLA bbeE

Nazabal, Lacturale sortaren irabazle

Anbotokideen artean Lacturaleren esneki-sorta zotz egiten gabiltza. Oraingoan, Maite Nazabal Etxebarria zornotzarra izan da hileko Anbotokidea eta onuraduna. Nazabalek Anbotoren inprimakiko galderei erantzun die. Zuk ere sari paregabe hau irabazi gura duzu? Anbotokide bazara, bete inprimakia eta parte hartu. Ez bazara, lehenengo egin zaitez Anbotokide.



DURANGALDEA ASTEON

Betigol Zornotza nesken areto futbol taldea 16 urtetik gorako jokalarari bila dabil

ZORNOTZA Betigol areto futbol kluba jokalarari bila dabil taldea indartzeko. Taldekoek jakinarazi dute 16 urtetik gorako emakumeei dagoela zabaldua deialdia. Bertako kide izan gura dutenek 686 808 031 telefonora deitu dezakete, edo @betigolzornotza Instagram kontura idatzi.



@BETIGOL

Zapatu arratsaldean Iurretako Trikitixa Jaialdia ospatuko dute Bakixan

ZORNOTZA Zapatuan trikiti eta pandero hotsez bustiko da Iurretako Bakixa auzoko ermita ingurua. Izan ere, Bakixako kultur elkarteak antolatuta, Iurretako Trikitixa Jaialdia egingo dute. Jaialdia 17:30ean hasiko da eta iluntzerako afaria antolatu dute.

GUTUNAK

Berrizko Udalarari

ISABEL ISAZELAIA MEAURIO

Berrizko herritarra naiz, Urzabal auzokoa. Gure auzotik plaza aldera joateko dauzkagun irisgarritasun arazoak udalari jakinarazi arren, ez digute inolako erantzunik ematen, eta aldezkarri honen bitartez egoera salatu nahiko nuke. Urzabal auzoa, azken urteotan, lotsagarri ez ezik oso arriskutsu ere badago. Gure auzotik plazarako bidea oztopoz beterik dago; irisgarritasuna ia ezinezkoa da jende nagusiarentzat, ume txikiak dituztenentzat eta ezintasunen bat dutenentzat. Bi urte eta erdian zubipeko etxe bat erdi erorita dago eta Urzabal auzotik plazara, ambulatiora, supermerkatu eta abarretara joan behar dugunok aldazio azpitik igaro beharra dugu, ilunetan, ibaitik plazaraino oztopo piloa baitago, eta negu partean eta euria egiten duenean ezin dugu euritakorik ere zabaldu. Erortzen ari den eraikinaren horma jausi zenean, pazientziak hartu genuen, aste batzuetako kontua izango zelakoan. Hasieran

azpitik pasatzeko beldur ginen, gainera eroriko ote zitzaigun beldurrez, eta, konpondu eta pasabidea txukundu beharrean, aldario gehiago jarri dituzte horrela jarrai dezan. Jada bi urte igaro dira eta ez du konpondua izateko itxuririk. Zeren zain egon behar dugu? Adinekoren batek burua apurtu arte itxaron behar dugu? Auzotar (guztion?) askoren artean egonezina sumatzen dugu, eta neurriak har ditezela eskatzen diogu alkateari, Urzabalgo auzotarrok pasabide egokia izan dezagun plaza aldera joateko; pasabide garbia, segurua, argiztatua eta oztoporik gabekoa. Beste barik, gure kexa argitaratua izango delakoan, eta udalak berriztarron onerako neurriak hartuko dituelakoan, eskerrak eman nahi ditugu.



POLITIKAN

Lokal hutsak etxebizitza bihurtzeko pausoak



PAULE SANCHEZ
EAJ-PNV

Durangon bizi-proiektua garatzea nahi dutenei etxebizitza-aukerak eskaini ahal izatea jeltzaleon lehentasun nagusienetako bat da eta argi dugu etxebizitza hori eskuragarria eta duina izan behar dela. Xede horrekin, 2026ko martxoan Etxebizitza Plana onartu genuen. Planak bizitegi-krisiari aurre egiteko funtsezko 15 neurri jasotzen ditu, berebizikoak direnak, eta horien artean dago lokal hutsak etxebizitza bihurtzearena.

Zeregin horretan, datorren astelehenean, ekainaren 8an, udalerrrian hutsik dauden lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza berriari buruzko kontsulta publikoa hasiko da. Ordenantza honek helburu zehatzak ditu: bizigarritasun baldintzak betetzen dituzten lokal hutsak herritarren erabilerrarako jartzea, Durangon bizitzeko aukera zabaltzea eta etxebizitza duinen kopurua handitzea. Kontsultarekin, herritarrok proposatutako araudia aztertu eta ekarpenak egiteko aukera izango dugu.

Etxebizitza gizarte erronka handienetako bat da, eta horri aurre egiteko neurri tekniko efektiboak, erakundeen arteko lankidetzak sendoa eta epe luze-rako ikuspegia eskatzen da.

Durango EAJ-PNVn lanean jarraitzen dugu Durangon bizitzeko aukerak handitzeko eta etxebizitzaren erronkari erantzun eraginkor, arduratsu eta epe luzeko irtenbideekin aurre egiteko.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





SUDOKUA

LABIRINTOA



MATEMATIKAK

 = 3
  = 5
  = 2
  = 4
  = 8







 +  = 

 +  = 

 -  = 

 ×  = 

OSATU MARRAZKIA



Aitziber Basauri ZORNOTZA

Zornotzako eta Lea-Artibaiko (Bizkaia) kideek osatzen duten Eztandap taldeak hirugarren diskoa kaleratu du: *Itzalak*. Maiatzaren 25ean argitaratu zuten audio plataformetan, eta ekainean kontzertu bira hasiko dute. Martin L. Guevaragaz grabatu dute, Bilboko Silver Recordings estudioetan. Azken diskotik jauzi nabarmena eman dutela azaldu du Asier Fernandez taldekideak (Zornotza, 1989).

Zelan definituko zenuke 'Itzalak'?

Rock doinuek definitzen dute gure musika; hala ere, beste estilo batzuetako elementuak hartzea ere gustatu zaigu beti. Funk, blues, punk, metal doinuak... erabili ditugu. Orain ere bide beretik joan gara. Konposizioetan, geroago eta maila hobea dugu teknikoki. Estilo aldetik disko anitza eta dinamikoa dela esango nuke, beti ere rock doinuen barruan. Produktzio aldetik lan handiagoa egin dugu eta igartzen da. Soinuak energia handiagoa du.

Zer transmititu gura du diskoak?

Barruan duguna adierazi gura izan dugu beti. Kasu honetan, sufrimendua, eta adierazteko gogo horretatik zeozer polita sortu. Energia, indarra, alaitasuna eta ondo pasatzeko gogo eragiteko abestiak sortzea dugu helburu. Disko honetan, sufrimendu hori zeozer positibo bihurtzeko baliatu dugu musika. **Beraz, bakoitzaren itzal pertsonalak islatu dituzue diskoan.**

Itzalak abestiak ematen dio izena diskoari; hala ere, esan daiteke abestietan badagoela ildo bateratu bat: egoera txar batetik abiatuta zelan lortzen dugun aurrera egitea, zelan kudeatzen dugun egoera. Horixe da diskoaren kontzeptua, eta diskoaren azala ere bada ideia horren isla:



Asier Fernandez, Juan Diego Chancafe 'Jondi', Jonathan Santos 'Melas', Asier Goikoetxea 'Logan' eta Jon Ander Agorreta 'Txonan'. TXABER MIRAVALLÉS

MUSIKA

"Esperientziak sendoago jotzeko aukera eman digu, beste heldutasun maila bategaz"

ASIER FERNANDEZ EZTANDAP TALDEA

Audio plataformetan entzungai da Eztandap taldearen hirugarren lana: 'Itzalak'. Rock doinuak baztertu barik, disko anitza eta dinamikoa osatu dute

kintsugia dakarkigu gogora. Kintsugia japoniar jatorriko arte forma bat da, ehun urte baino gehiago dituena, eta apurtutako zeramikazko piezak urre hautsez erreparatzean datza. Norbere ahuleziekin, ezkutatu

"Iluntasun batetik abiatuta argitasunera egindako bidea islatzen du diskoak"

barik, zeozer polita egin daitekeela erakusteko modua da. Ideia horregaz jolastu dugu azala sortzeko, letrek diotena eta diskoaren irudia lotuta. Iluntasun batetik abiatuta argitasunera egindako bidea islatzen du *Itzalak* lanak.

'Eta ni begira' lanagaz alderatuta, zein da desberdintasunik handiena? Orain arte legez, abestiak gure bizi esperientziatik abiatzen dira, eta gu ere helduagoak izanik, esan daiteke heldutasun hori igartzen dela. Hasierako ideia bat bota ondoren, denon

ekarpenekin osatu ditugu abestiak. *Itzalak* diskoan denok parte hartu dugu gehiago. Jonathan Santos 'Melas' abeslariak hiru abesti sortu ditu, eta Juan Diego Chancafe 'Jondi' bateria-jotzaileak beste abesti bat.

"Zortzi hilabete inguru daramatzagu kontzerturik eman barik, eta gogotsu gaude jotzeko"

Eztandap sortu zenetik, zelakoa izan da bilakaera?

Lehengo taldekide eurak gara, bateria-jotzailea kenduta. Aurrekoak iazko uztailean utzi zuen taldea, sei urteren ondoren. Elkar ondo ezagutzen dugu, eta, gainera, lagunak gara. Esango nuke orain bost urte ere gai ginela teknikoki orain jotzen dugun moduan jotzeko. Baina esperientziak sendoago jotzeko aukera eman digu, beste heldutasun maila bategaz. Apurka hobetuz joan gara, erosoago sentitzen gara. Gainera, gutariko bakoitzak musikan trebatzen jarraitu du.

Bilboko Silver Recordings estudioagaz grabatu duzue berriro. Zelakoa izan da sortze prozesua?

Bigarren diskoagaz izan genuen esperientzia oso positiboa izan zen, eta Martin L. Guevararengana jo dugu berriro ere. Orain urte bi oso ondo eraman gintuen eta oso soinua naturala eta organikoa lortu genuen. Gainera, orain argiago izan dugu zer eskatu, zer egin. Badakigu zer emateko gai garen. Soinuari dagokionez, asko findu ditugu gauzak (*reverd* efektuak, bateria...) Abesti batean sintetizadorea sartu dugu, eta beste batean panderoa... Instrumentuei dagokienez, estiloei dagokienez, disko anitzagoa da *Itzalak*. Oso pozik gaude emaitzagaz. Gainera, zortzi hilabete inguru daramatzagu kontzerturik eman barik, eta gogotsu gaude jotzeko. **Noiz hasiko zarete kontzertuekin?** Ekainaren 19an Eako jaietan joko dugu. Uztailean Galizian joko dugu, hilaren 2an Vigon, eta 3an Sarrian. Eta Zornotzako jaietan uztailearen 18an. Kontratazioa zabalik dugu eta kontzertu berriak iragartzen joango gara. Udara begira, sorpresaren bat ere izango dugu.



**OSATU ZURE PROFILA
ETA IRABAZI!**

TOKIKOM LIGA

**egunean
behin?**

**Anbotogaz
jokatzeak
saria dakar!**



Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan
ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz



Anita Maravillaseko lantaldea, MAX saria irabazi berritan. MAX SARIAK

ANTZERKIA

Anita Maravillas eta Portal 71-ren 'Andereño' obrak Max saria irabazi du

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Anita Maravillas eta Portal 71-ren *Andereño* antzezlanak Max saria irabazi du, umeentzako edo familientzako ikuskizunik onenaren atalean. Ilusio handiz jaso dute saria, lantaldeko Miren Larreak azaldu duenez. "Sari korala da, sari kolektibo bat, antzezlanean parte hartu duten sortzaile guztientzat dena eta pozarren gaude", nabarmendu du Larreak. Beste izendapen bi ere izan dituzte Espainiako Arte Eszenikoen 29. Max sarietan: Fran Lasuen artistak, Zornotza bizi den eibartarrak, komposizio musikalik onenaren nominazioa jaso zuen. Eta Ion Chavez argi teknikari berriztarrak argizta-

penik onenaren kategoriakoa. Biek egindako lan "ikaragarria" nabarmendu du Larreak.

Max saria jasotzeak "ikusgarritasuna" ematen duela adierazi du Larreak. "Badugu ibilbide bat, sektorean ezagutzen dute gure lana. Baina, egia esanda, horrelako aitortza batek zelanbaiteko ikusgarritasuna ematen digu lan edo proiektu berriei begira. Eta, zelan ez, *Andereño* obrari ere bai, jakina", gaineratu du.

Sariri barik

Ganso & Cia-ren *Welcome and sorry* antzezlanak kaleko antzerkirik onenaren izendapena jaso zuen, baina ez du saria lortu.

KONTZERTUA

'Durango Hiria' txistu kontzertuak Rodrigo A. de Santiago gogoratuko du

A.B. DURANGO

San Agustin kulturgunek Durangoko Eukal Jaien barruan geroago eta errotuago dagoen 'Durango Hiria' txistu kontzertua hartuko du. Ekainaren 6an egingo duten emanaldian Rodrigo A. de Santiago musikagilea go-goan hartuko dute. Txistu kontzertua amaitutakoan, Vanesa Aibar flamenko dantzariak *Cristalización C5* ikuskizuna taularatuko du.

Txistu kontzertua 20:00etan hasiko da eta Aitor Amilibia, Aritz Labrador eta Maite Sagastibeltza txistulariek lau pieza joko dituzte: *Capricho vasco*, *Ravelen zortzikoa*, *Kantutegietako doinuen suitea* eta *Eran-*

dio-Goikoa. Javier Castaño atabalaria izango dute lagun.

Dantza flamenkoa

Txistu kontzertuaren ondoren, *Cristalización C5* dantza ikuskizuna ikusteko aukera ere egongo da. Vanesa Aibar flamenko dantzariak eta Juan Manuel García-Ruiz zientzialariak —kristalografian eta kristalizazioan aditua— sorturiko espektakulua da, dantza eta zientzia uztartzen dituen. Aibarrek Juan Antonio Sáez 'Canito' gitarrista eta Calde Ramírez musikaria eta ikus-entzunezko sortzailea izango ditu lagun San Agustin kulturguneko oholtzan.

BERTSOLARITZA

Durungaldeko taldek bik parte hartu dute Bizkaiko Taldekako Txapelketan

A. Basauri DURANGALDEA

Durungaldeko bertsolari talde bi arituko dira asteburu honetan abiatuko den Bizkaiko Taldekako Txapelketan: Lirio Loreak eta duranGALDUEK.

Lehenengo fasean bost kanporaketa jokatuko dira, horietariko bat Iurretan. Ekainaren 6an izango da, Abadetxean, 12:00etan. Bertan, Lirio Loreak (Durangal-

dea), Itallen (Larrabetzu) eta Pirata Eskola (Urduliz-Plentzia-Gorliz-Lemoiz) taldeak arituko dira. Eskualdeko bigarren taldeak Gernikan jokatuko den kanporaketa saioan parte hartuko du, ekainaren 12an.

80 parte hartzailetik gora

Bizkaiko Taldekako Txapelketak Bizkaiko bertsolaritzaren

MUSIKA

Elai Berrojalbizen 'Neu ez' proiektuaren lehen abestiak kalean

E.H. DURANGO

Elai Berrojalbizek *Neu ez* (proiektuari izena ematen dion abestia), *Hanibal Lerruridin* eta *Bilbo Minneapolis* argitaratu ditu. Azken horrek, urtarrilaren 29an Bilbon poliziak kaleko salmantan dabilzanen aurka egin-dako sarekada salatzen du, "Minneapolisen Trumpen ICE patruilek migratzaileen kontrako oldarraldien oihartzunaren pean gertatu zena". Musikari durangarrak esan du abestiak euren bidea egiten hasita daudela, eta Bilboko Manteroeekin Bat plataformak *Bilbo-Minneapolis* abestia erabiltzeko baimena eskatu diola. Mungiako Barbaiza estudiantean grabatu ditu abestiak.

oinarria indartzea du helburu nagusi. 2017an jokatutako txapelketa lehenengoz, eta aurtengo bosgarren edizioa izango da. Guztira, 14 taldek eman dute izena, eta, beraz, 80 parte hartzailetik gora izango dira. Finalaurrekoak eta finala irailaren 12an jokatuko dira, Bizkaiko Bertsotale Elkartearen egunagaz batera. Finalaurreko bi jokatuko dira; batean hiru talde eta bestean bi arituko dira. Finalerdi bakoitzeko talde irabazleak jokatuko du finala.

GAI LIBREAN



MIREN ERDOIZA MUJIKA
BEHARGINA

Etxe bat

Gure etxea ni baino zaharragoa da. Dauka egurrezko eskeleto bat, eta dauka harrizko azala. Dauka taberna bat eta dauka komun bi. Dauka sukalde handi bat, eta dauka hiru solairu. Gure etxeak eskailerak ditu kanpoan, eta eskailerak ditu barruan. Dauka plaza eder bat eta dauka iturri fresko bat. Gure etxeak bi ate dauka eta begoniaz jantzitako leihoak.

Gure etxetik gurea ez den zezena dakusagu, eta gure etxean gureak (ere) diren bankuek epeltzen digute ipurdia. Gure etxean asetzen gara egarriz eta gosez gaudenean. Gure etxean itozten ditugu penak eta ospatzen ditugu garaipenak.

Gure etxean izar gorriak ageri dira piztuta gauetan, eta zortzi argazki daude horman eskegita. Dago kafea noiznahi eta daude sekula dastatutako azeitunarik goxoenak. Gure etxean Landako bokata begetarianoa dago, eta Arripausueta klasiko

"Gure etxean kantatzen dugu euskaraz eta dantzatzen dugu libre"

"Gure etxea Intxaurre da eta aurten berrogei urte bete ditu"

Gure etxean Alde Zaharra amaitzen da, eta hasten da Intxaurre. Gure etxean entzuten ditugu kanpaiak San Frantziskotik, eta entzuten ditugu Santa Anatik ere. Gure etxean elkar zainduz arriskutsuagoak garelako ikasi dugu.

Gure etxean kantatzen dugu euskaraz eta dantzatzen dugu libre. Gure etxean besarkatu ditugu aspaldiko lagunak. Gure etxean udaberriaren egunero jai eguna izaten da, eta gure etxean ekaina ospatu egiten dugu.

Gure etxea kendu nahi izan digute grisek, urdinek eta berdeek, eta gu teilatura igo gara askatasunaren alde banderak astintzera. Gure etxean sortu dira ameslariak eta sortu dira borrokariak. Gure etxean egunero akordatzeko gara sekula itzuliko ez direnekin.

Gure etxea nire aitarena eta nire amarena da. Gure etxea zurea bezain nirea da. Izan zirenean eta izango direnean. Gure etxea Intxaurre da eta aurten berrogei urte bete ditu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 5

- **ABADIÑO 'Un sombrero de paja de Italia'** Banarteko 17. Antzerki Tailer antzezlan, Errota kultur etxean, 19:30ean.
- **ABADIÑO No somos tu rollo** Kontzertua. Zelaietako Jubilatuen Tabernan, 20:00etan.
- **DURANGO Taupa** Auzoko elkarrizketa-solasaldi irekia hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan aritzeko, euskara erdigunean kokatuta. Kuruzesantu museoa, 17:30etik 20:00etara.
- **DURANGO XV. Peter Memoriala Pilota Txapelketako finalerdiak** Durangoko Pelotazale Elkarteak antolatuta. Ezkurdi Jai Alai frontoian, 19:30ean.
- **DURANGO Afrikaren Eguna** Jeffrey Nku artistak (Ghana) eta Weblezz Owen Afrobeat R&B de Benin taldearen (Nigeria) kontzertua Andra Marian, 20:30ean.
- **IURRETA 'Como la vida misma'** La Sombra Teatroren lana. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **MALLABIA Ander Martinen Oroimenezko I. Frontenis mistoa** Herritarrentzako txapelketa. Frontoian, 18:30ean.
- **ZORNOTZA San Antonio Jaiak** Jaien hasiera bolanderekin, kanpai hotsekin eta Gaztedi berria fanfarreagaz, 19:00etan. Mus txapelketa San Antonioko ermitan, 20:00etan. DJ Kaburr, San Antonio auzoan, 23:00etan.

ZAPATUA 6

- **DURANGO Ortuertarako landare ekologikoak** Biolandare Haztegiaren eskutik. Merkatu Berrian, 08:30etatik 12:30era.
- **DURANGO Buztinezko plater loratuak** Tailerra (5 urtetik gora). Informazioa: buztintailerra@gmail.com. Herria Auzo Elkarteak

- antolatuta. Otamotzena auzogunean, 17:30ean.
- **DURANGO XXII. Zesta Punta Txapelketaren Finalerdiak** Durango Jai Alai Zesta Punta Eskolak antolatuta. Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, 17:30ean.
 - **DURANGO Euskal Dantza erakustaldia** Muskildi (Zuberoa) eta Tronperri (Durango) dantza taldeen saioa. Tronperri Dantza Taldeak antolatuta. Andra Mariko elizpean, 18:00etan.
 - **DURANGO 'Durango Hiria' txistu kontzertua.** Rodrigo A. de Santiago gogoan. Ondoren, *Cristalición C5* (Vanesa Aibar flamenko dantzaria, Juan Antonio Suárez 'Canito' gitarrista eta Calde Ramírez musikari eta ikus-entzunezko asortzailea). Silboberri Txistu Elkarteak antolatuta. San Agustin kulturunean, 20:00etan.
 - **DURANGO Afrikaren Eguna** Batukadagaz animazioa, Andra Marian, 11:45ean. MLOP talde senegaldarraren dantzaldia, 12:30ean. Elkarte afrikarren adierazpena, 12:45ean. MLOP taldea, 13:00etan. Batukadagaz kalejira Landako Gunera, 13:45ean. Herri bazkaria, 14:00etan.



SAL DEL COCHE

ABADIÑO Kontzertua Lizardi, Jangitz eta Alberto musikari bizkaitarrek esploratzeko eta musika muturreraino eramateko sortu zuten 'Sal del coche' proiektua. Asteburuan Abadiñon egongo dira. Amaraun Arte Fabrikan, ekainaren 7an, 13:30ean.

- DJ Gaby, 16:00etan. Mame Cheikh talde senegaldarraren dantzaldiagaz (SABAR), Andra Marian, 20:30ean.
- **DURANGO 'Artea kalean'** Bisita gidatua. Turismo Bulegoan, 10:30ean (euskaraz) eta 12:30ean (gaztelaniaz).
 - **IURRETA Bizkaiko Taldekako Bertso Txapelketa** Durangaldeko Lirio-loreak, Larrabetzuko Itallen eta Uribe Kostako Piratak. Abadetxean, 12:00etan.
 - **IURRETA Trikitixa Jaialdia** Honako trikitilariak arituko dira: Itzeder, Txibiltter, Garixe eta Txino; Araitx, Xabi eta Igor Etxaniz; Arene eta Uxue; Petite eta Bereikuatarrak; Maiztegiko ikasleak eta ikasle ohiak; Imanol Intxausti, Xabi Arakama eta Inaki Larrañaga; Zabaleta eta Motriku. Bakixako kultur elkarteak antolatuta. Bakixa auzoan, 17:30ean.
 - **MALLABIA Herri kirolak** Erakustaldia eta umeentzako herri kirolak. Txondor herri kirol elkarteak antolatuta. Frontoian, 19:00etan.
 - **MAÑARIA Abesbatzen kontzertua** Kirikiño (Mañaria), Xuxurlariak (Zornotza) eta Pispillu (Ermua) abesbatzak. Jasokundeko Andra Mari elizan, 20:00etan.
 - **OTXANDIO Gaztetxearen 25. urteurrena** Triki-poteoa, 13:00etan.

- Bazkaria, 14:30ean. Manifestazioa, 18:00etan. DJ ibiltaria, 19:00etan. Jamaiketa + Lamikiz, Gaztetxean, 21:00etan. Kontzertuak: Kiliki + Arene 6 + Kaparrak + DJ Guate-k, 22:00etan, plazan.
- **ZORNOTZA San Antonio Jaiak** Poteoa trikitilariakin, ermitako txosnatik, 13:00etan. Auzo bazkaria Txantonnesan (alde zurretik izena bertan emanda), 15:00etan. Igel txapelketa, San Antonio auzoan, 19:00etan. Tortilla txapelketa, 19:00etan (aurkezpena, 20:00etan). Kantaldia Miren Fernandezegaz eta Aitor Furundarenagaz 23:00etan. Gero, DJ Kaburr.

DOMEKA 7

- **ATXONDO Artisautza azoka** Sonidero Galerna taldeak girotutako azoka, Amillena bentak antolatuta. Arrazolan (10:30-15:00).
- **DURANGO 'Irulegiren eskuaren bila'** Euskal mitologian inspiratutako pista jokoa. Informaziorako: ihesgelamitologikoa@gmail.com. San Fausto auzoko futbito kantxan, 12:00etan.
- **DURANGO 'Sam Gandarias. Migrazioaren Ahotsa'** Kontzertu narratiboa. XX. mendearen hasierako euskal migrazioaren ahotsa berreskuratzeko ikuskizuna, Simon 'Sam' Gandariasen bertsoetatik abiatuta, Joseba Sarrionandia idazleak *We Are Plenty in Here Euzkadin eginak* lanean bildutakoak. Luhartz taldeak antolatuta. Plateruenean, 19:00etan.
- **ELORRIO X. Urarka Azoka** Artisauek eta sortzaileen azoka, Urarka kalean, 10:30etik 14:30era. HAN musika taldea, 12:00etan. Txiki Txoko artistikoa, Mieltxo taloak eta Brewery Land, goizean zehar.
- **MALLABIA Nekazaritza eta Artisautza Azoka** Baserriko produktuen eta artisauek lanen erakusketa, plazan, 10:00etan. Gazte Alai dantza taldea, eguerdian. Jira Bira diskoteka, 17:00etan, parkean.
- **ZORNOTZA San Antonio Jaiak** Meza, 11:30ean.

Ondoren, Zornotzako Otxotearren emanaldia. Luntxa trikitilariakin eta txistulariakin, 13:00etan. Gero, ardi mozte erakustaldia. Umeentzako puzgarriak eta animazioa, eta ping-pong txapelketa, 16:30ean. Gero, parrillada eta txokolatea. San Antonio auzoan.

ASTELEHENA 8

- **MALLABIA 'Indartu zure hezur eta muskuluak'** berbaldia. Hizlaria: Maite Gonzalez (osteopata). Jubilatuentzako txokolatea. Kontzejuzarreen, 16:30ean.
- **ZORNOTZA San Antonio Jaiak** Briska txapelketa, San Antonio auzoan, 18:00etan.

EGUAZTENA 10

- **DURANGO XV. Peter Memoriala Pilota Txapelketako finalerdiak** Durangoko Pelotazale Elkarteak antolatuta. Ezkurdi Jai Alai frontoian, 19:30ean.
- **ZALDIBAR 'Autokontsumo kolektiboa'** Berbaldia. Liburutegi zaharreen, 18:00etan.

EGUENA 11

- **DURANGO Sukaldaritza tailerra** Arrazolako Amille Bentako kideen eskutik. Merkatu Berrian, 18:00etan.
- **DURANGO Herri kirolak** Artzainen herri kirolak (LH6ko ikasleentzat). San Jose Jesuitak ikastetxeak antolatuta. Ezkurdi plazan, 09:30etik 11:30era.
- **DURANGO Jokoak** Joko tradizionalen topaketa (LH4ko ikasleentzat). Landako eskolak antolatuta. Landako kiroldegian, 10:00etan.
- **DURANGO Euskal musika jaia** Oihan Vegaren eskutik. Ezkurdi kioskuan (euria bada, Andra Mariko elizpean), 11:45etik 12:45era.
- **IURRETA Zinea eta literatura** 'Hamnet' filmaz eta liburuaz jarduteko solasaldia. Abadetxean, 18:00etan.
- **OTXANDIO Mekoletako Jaiak** San Bernabera

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Masters of the universe
Barikua 5: 17:45, 20:30.
Zapatua 6: 17:45, 20:30.
Domeka 7: 16:45, 19:30.
Astelena 8: 17:30, 20:15.
Martitena 9: 17:30, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00
Cada día nace un listo
Barikua 5: 18:00, 20:30.
Zapatua 6: 19:15, 21:30.
Domeka 7: 19:30.
Astelena 8: 18:00, 20:15.
Martitena 9: 18:00, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.
Todo lo que nunca fuimos
Barikua 5: 18:00, 20:30.
Zapatua 6: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka 7: 17:00, 19:30.
Astelena 8: 18:00, 20:15.
Martitena 9: 18:00, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.
Shrek
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 17:00.
Euskal Herriak Himalaiara, nola eta norekin
Eguena 11: 19:00.
Ondoren solasaldia.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Michael
Zapatua 6: 20:00.
Domeka 7: 20:00.
Astelena 8: 20:15.
Fleak
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 17:00.



igoera, 09:00etan. Mendi erromeria eta txupinazoa, 10:00etan. Meza eta luntxa, 12:30ean. Mus eta briska txapelketa, 17:00etan.

- **ZALDIBAR 'Kirola eta transexualitate'** Berbaldia. Liburutegi zaharreen, 18:00etan.

XXXXXXX

"Ez naiz jokalarari espektakularra izan, baina uste dut albokoak hobetu egiten nituela"

UNAI ARIZMENDIARRIETA GARAY

DURANGOKO KULTURALEKO FUTBOLARI OHIA

Futbol ibilbide osoa Durangoko Kulturean egin eta gero, lesioengaitik utzi behar izan du futbola

Joseba Derteano FUTBOLA

17 denboraldian Durangoko Kulturean jokatu eta gero, Iker Arizmendiarieta Garayk (Durango, 1997) agur esan dio futbolari, 28 urte baino ez dituen arren. Talde berean egin du ibilbide osoa. Zazpi urtean taldeko kapitaina izan da. Bigarren B Mailarako igoera eta hainbat lesio larri bizi izan ditu bidean. Belauneko hiru ebakuntza eta sorbaldako beste bi izan eta gero, futbola uzteko unea heldu zaio-la erabaki du.

Asko kostatu zaizu erabakia hartzea?

Beti kostatzen da, baina lesio larri asko izan dut azkenaldian. Esaterako, sorbaldan bigarren ebakuntza egin didate. Futbola ondo utzi gura nuen, ondo ibilita. Aurten polito eta gustura ibili naiz eta beste urtetxoren bat luzatu nezakeen beharbada, baina orain hiru hilabete meniskoa apurtu nuen eta hortxe erabaki nuen aurtengoa azkeneko urtea zela. Belauneko hirugarren ebakuntza izan da. **'One Club Man' izan zara, beti talde berean. Leialtasunagaitik izan da ala etxe inguruan eroso zeundelako?**

Denagaitik apur bat. Jesuitetarik irten eta Kulturean sartu nintzen. Niretzat ametsa zen hemen jokatzeko. Beheko mailetan, klubetik kanpoko eskaintzak izan nituen, Arenasera joateko, esaterako, baina ikasketengaitik-eta, etxean geratu nintzen. Eta denbora aurrera doan neurrian, klubeko indentitatea bar-

neratzen duzu. Zelaian nire herria defendatzea gustatu zait. **19 urtegar debutatu zenuen lehenengo taldean. Gogoan duzu ligako partidu hura?**

Ba hori baino gehiago gogoratzen dut denboraldiaurrean jokatu nuen lehenengoa. Orduan apurtu nuelako, lehenengoz, belauneko lotailu gurutzatua. Zapora txar hori dut: lehenengo partiduan, belauna apurtu. Ligako lehenengokoa ez dut ia gogoratzen.

Izan daiteke zorte txarragorik lezioekin?

Benetan ere! Umetatik haur kategoriara sekula ere ez nintzen lesionatu, ezta zaintiratu bat ere. Eta begira gerora. Egia esanda, ez dakit zergaitik gertatu den.

2018a, Bigarren B Mailara igo zineten urtea. Zelan gogoratzen duzu urte berezi hura?

Seniorretako lehenengo etapa polit horretako kolofoa izan zen. Gainera, hurrengo urtean klubak 100 urte egin zituen. Emozioz beteriko bi-hiru urte izan ziren. Sasoi hartan itzela zen Kulturean jokatzeko.

Itxaroten zenuten igotzea?

Urte ona egitetik gendozen. Igotzea espero zen? Beharbada bai, baina ez zen exijentzia bat. Eta, egia esanda, igoerakoak zorzea ere alde duzun urte borobilak izaten dira. Txarto jokatu eta irabazi egiten genuen. Gehitu horri jokalarari onak, taldearen indarra, entrenatzailearen jokamoldean genuen konfiantza... Gure urtea zela sentitzen genuen.



Etorkizunean entrenatzaile aritzea gustatuko litzaioke.

Bigarren B Mailan, hamargarren jardunaldian heldu zen lehenengo garaipena. Hura beste mundu bat zen.

Igotzea oso zirragarria izan zen, eta beharbada ez genuen behar zen beste barneratu zein gogorra izango zen maila berria. Mirandes, Santanderko Racing... Sardineron jokatu genuen! Ez genuen presiorik izan, ez klubaren aldetik eta ez zaleenetik. Beste mundu bat zen, baina, benetan diot, denboraldi zoragarria izan zen.

Urte hartako zein partidu ez zaizu ahaztuko?

Aipatu duzun hori, lehenengo garaipena: 1-2 Sporting B-ren aurka. Partidua youtuben dago eta hiru bider ikusi dut. Irabazi genezakeela sinesteko balio izan zigun. Gainera, Gijonen asteburu-pasa geratu ginen eta oso oroitzapen onak ditut.

Zazpi urtean taldeko kapitaina izan zara. Zer esan gura du zuretzat besokoa eramateak?

Txikitatik izan dut rol hori. Jesuitetan ere argazkiak ditut besokoagaz. Nire izaeragaitik dela uste dut. Ez da izan gauza berri bat. Taldeak eta taldekideek konfiantza izan dute nigan.

Zer ikusi dute zuegan konfiantza hori emateko?

Ez naiz jokalarari espektakularra, baina uste dut albokoak hobetu egiten ditudala. Laguntzen ahalegintzen naiz. Horrela ikusten dut neure burua eta besteek ere horrela ikusten nautela esango nuke.

Lehen mailako zein jokalariren antzekoa zara?

Ez dakit esaten. Sasoi batean Carles Puyol ikusten nuen rol horregaz. Bera atzelaria izanda eta ni erdilaria. Ez zen zentral espektakularra, baina beti zegoen hor, edonori laguntzeko.

Zure ibilbideko zein momentu gogoratuko duzu betiko?

Bigarren B Mailarako igoera etxean lortu genuenean, Tabira beterik zegoela. Oilo ipurdia jartzen zait gogoratzen dudanean. Horrelako une bat berriro ikustea gustatuko litzaioke, baina

"Agurra momentu polita izan zen, nitaz jende asko akordatu zela ikusi nuelako"

une honetan gatz ikusten dut. Partidu hura aukeratuko nuke, baina baita izan nuen agurra ere. Ez zen posible izan zelaian agurtzea, baina momentu polita izan zen, nigaz jende asko akordatzen dela ikusi nuelako.

Etorkizunean, zelako Kulturalagaz amesten duzu?

Hirugarren RFEF Maila punta-puntako taldea izatea gura nuke, Durangaldeko jokalarari askogaz jokatzeko duena.

Futbola utzita, zer falta igarriko duzu?

Egunerokotasunaren falta. Egia esanda, jokalariorik kexatu egiten gara entrenamendu eta partidu asko izaten dugulako, baina gero giro horren falta igartzen dugu.

Futbola zein kirolez ordezkatuko duzu?

Kirol askotara gonbidatu nautela! Eskerrak kirolzalea naizen: txirrindularitza, korrika egitea, padela, tenisa, frontenisa... Jendeari esan diot ez dudala astirik hainbeste kirolean aritzeko. Lehengo batean rokodromora gonbidatu ninduten, baina ez dut neure burua arroka baten gora imajinatzen.

Aurrerantzean zer hartu-eman izango duzu Kulturalagaz?

Orain distantzia apur bat hartu gura dut, pare bat urte neuretzat hartu. Gerora, umeen talderen bat entrenatu gura nuke. Hori bai, Kulturalako bazkide eta zale sutsua izaten jarraituko dut.

Gazte mailako talde biak mailaz igo dira. Harrobia indartsu dator?

Bai, eta konfiantza eman behar zaie gazteei. Konfiantza eman ezik ez dira inora helduko. Gero, badut gazteriari buruzko sentazio arraro bat, orokorrean hartuta. Nire garaian, denok lehen taldera heltzea amesten genuen. Nire kasuan, gainera, anaia eta lehengusua han zebiltzan: Ibon eta Mikel Arizmendiarieta. Orain, gazteen artean ez dut futbolagazko konpromiso eta pasio hori ikusten. Beste kontu batzuetara begira ikusten ditut. Futbola lehenago uzten dute. Ez dakit, bidean zeozer galdu dela sentitzen dut.

Anaia eta lehengusua erreferente izan dituzu?

Eskolan nagusitan zer amesten nuen galdetuz, "anaia eta lehengusua Kulturean jokatzeko" erantzuten nuen. Anaia-gaz bi-hiru urtean kointziditu nuen. Bigarren B Mailako urtea izan zen euretari bat. Lehengusua ni lehenengo taldera igo aurretik utzi zuen.

Geureakek lehenengoz irabazi du Euskal Liga eta Betsaide Elorriok titulua berretsi du

Elorrion harrera jendetsua egin zieten txapeldun biei joan zen asteburuan

Joseba Derteano ELORRIO

Eskualdeko errugbiak, eta beziki Elorriokoak, lorpen handia bizi izan zuen joan zen asteburuan. Zarautzen jokaturiko Euskal Ligako finalean, emakumeen Geurea taldea eta gizonen Betsaide Elorrio txapeldun geratu ziren. Geurea taldeak lehenengoz irabazi du Euskal Liga; gizonek, ostera, bigarren urtez jarraian jantzi dute txapela. Lorpen bikoitzaren ondoren, Elorrioko Udalak harrera egin zien talde biei. Plazan jende asko batu zen garaipenak jokalariek batera ospatzeko.

Geurea taldea Elorrio Rugby Taldeko, Zornotzako Urgozo taldeko eta Arrasateko errugbi taldeko jokalariek osatzen dute. Azken hauek, Arrasatekoak, Eibarregaz aritu ziren iaz, baina hartu-eman hori eten ostean, aurten Geurea taldera batu dira. Batasun horrek taldearen "maila handitzen" lagundu duela uste du Dani Palacios entrenatzaileak. Taldeko jokalaririk gehienak Elorriokoak dira, "erdiak inguru" Palaciosen berbetan.

Finalean Gaztedi izan zuten aurkari. Gasteiztarrek "fabri-



Geurea eta Elorrio Rugby Taldea, Elorrioko udaletxean. ELORRIOKO UDALA



Zaleak plazan, udaletxeko balkoira irtendako jokalariek agurtzen. ELORRIOKO UDALA

to argiak" ziren Palaciosen ustez, liga irabazi eta nazional mailara igotzea lortu zutelako. Gainera, Geureakek hiru bider galdu zuen euren aurka denboraldian zehar. Hori nahikoa ez, eta Gaztedik taldea fitxaketekin indartu zuen ligako azken txanpari begira. Hala ere, finalak beste gidoi bat izan zuen. Gaztedi 7-0 aurreratu zen arren, Geureakek ez zuen etsi. Bigarren zatian 7-5 hurreratu zen, entsegu bat eginda. Eta partiduko azken jokaldian, garaipena emango zien bigarren entsegua lortu zuten. Jokalari gaztez beteriko taldeak pronostiko guztiak apurtu zituen. "Normalena galtzea zen, baina taldeak sekulako finala jokatu eta nortasun handia duela erakutsi zuen", esan zuen Palaciosek.

Gizonen lorpena

Bestalde, Betsaide Elorrio Rugby Taldeko gizonek Universitario Bilbao hartu zuten mendean finalean. Elkar ondo ezagutzen duten talde bi dira, hirugarren urtez jarraian neurtu dituztelako indarrak finalean. Elorriarrek bigarren urtez jarraian irabazi zuten finala. Orain urte bi Bilboko taldeak irabazi zuen finala, baina azken denboraldi bietan Euskal Ligako talderik indartsuena dela erakutsi du Elorriok.

Kasu honetan ere emozioz beteriko finala jokatu zuten, aldaketa asko egon zen-eta markagailuan. Azken emaitza honako hau: 29-27.

Txirrindularitzak hitzordu garrantzitsu bi ditu asteburuan

J.D. DURANGALDEA

Durangaldeak ziklismoari loturiko hitzordu inportante bi izango ditu asteburuan: junior mailako Urkiolako Igoera zapatuan, eta BIBE martxa zikloturista domekan.

Urkiolako Igoera Abadiñoiko udaletxean hasiko da, 15:00etan. Helmuga Urkiola gainean izango du, 18:00 inguruan. Miotako itzulia lau bider egingo dute. Ondoren, Areitio eta Goiuria igoko dituzte Urkiolarantz jo aurretik. Espainiako Koparen barruko proba denez, estatuko 26 talderik onenak batuko dira. Durangaldeak talde bi ditu: Dromedario-Flotamet eta Zornotzako F2 Informática. Abadiño Muntzaratz txirrindularitza elkartea da antolatzailea.

Bestalde, BIBE martxa zikloturistak 9. aldia egingo du domekan. Ehunka txirrindulari batuko ditu aurten ere. 08:00etan irtengo dira, Durangon, Landako Gune aurretik. Elorriotik Kanpanzar igoko dute. Gipuzkoatik ibili eta gero, Bizkaira sartuko dira berriro. Bizkaiko hainbat herri igaro eta mendate igo ostean, ziklistek Urkiolako santutegia izango dute helmuga, eguerdi aldera.

JOKALDIA



ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA
TXIRRINDULARITZA

Ate bat itxi eta bost zabaldu

Kirol profesionala ez da beti amesten dugun modukoa izaten. Batzuetan, ilusioz eta lan handiz eraikitako proiektu batek ez du aurrera egiteko behar dituen baliabideak aurkitzen. Aurten, Eneicat taldean ezin izan dugu hasieran genuen helburua bete eta emakumezkoen talde profesionala osatu. Babesleen faltak proiektua beste modu batera planteatzera behartu gaitu. Hala ere, egoera berriak ez digu ilusiorik kendu; alderantziz, gure arreta gazteengan eta txirrindularitzara hurbildu nahi duten kirolari berriengan jartzeko aukera eman digu.

Azken urteotan ikusi dugu talentua toki askotatik etorri daitekeela. Horren adibide da Paula Blasi. Triatloitik iritsi zen txirrindularitzara eta bi urte eskasetan Espainiako Vueltako garaile bihurtu da. Horrek erakusten du gaur egungo txirrindularitzak, batez ere, kirolariak

"Azken urteetan ikusi dugu talentua toki askotatik etorri daitekeela. Horren adibide da Paula Blasi"

"Kirola ez da soilik garaipenak lortzea. Esperientziak pilotzea eta pertsona gisa haztea ere bada"

behar dituela; ikasteko, lan egiteko eta hobetzeko gogoia duten pertsonak.

Lerro hauek idazten ari naizen bitartean, Kolonbian nago hainbat gazterekin. Lehiaketatik harago, mundua ezagutzeko aukera da hau: beste kultura batzuk, beste errealitate batzuk eta beste bizipen batzuk. Bidaiek ere hezi egiten du. Profesional izatera heldu ala ez, kirolak bizitza osorako balioko duten balioak eskaintzen ditu: diziplina, konpromisoa, errespetua eta norbere burua gaitzetzeko gaitasuna.

Azken batean, kirola ez da soilik garaipenak edo dominak lortzea. Esperientziak pilotzea, pertsona gisa haztea eta bidean ikastea ere bada. Horregatik, ate bat ixten denean, ez dut porrotik ikusten. Aukera berriak ikusten ditut. Izan ere, askotan, ixten den ate bakotzeko beste bost zabaltzen dira.

GUARDIAKO BOTIKAK

EKAINAK 5, BARIKUA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EKAINAK 6, ZAPATUA

09:00-09:00

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

De Diego, Intxaurrenondo 22. - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EKAINAK 7, DOMEKA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

EKAINAK 8, ASTELEHENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

EKAINAK 9, MARTITZENA

09:00-09:00

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

EKAINAK 10, EGUAZTENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

EKAINAK 11, EGUENA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño


Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Ana De Cos

Ana De Cos zoriondu nahi dugu, gure bizilagun bereziena. Zoriontasun hori bizitzen jarrai dezazula.



Julen

Zorionak, Julen, familiaren eta lagunaren partez. Oso ondo pasatu.



Ur

Maiatzaren 28an gure Ur-ek lau urte egin zituen. Zorionak etxeko danon partez.



Irantzu

Zaldibarko Irantzuk urteak egiten ditu. Zorionak familiaren partez. Musu handi bat.



Xiberu Egia

Zure 8. urtebetetze egunean zorionak eta musu handi bat etxeko guztion partez. Asko maite zaitugu.



Zorijonak, Aitte, Aittite eta Birraittite! Kuadrillan ospatu dozuz aurten be urtek. Karrokada bat urte egin dozuz, eta aurrerantzean be ospatzen jarraituko doguz. Musu handi bat danon partez!

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 401 400

📌 Gozatu Gozotegia

📍 gozatugozotegia



Zorionak XXXX (986.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

OROIGARRIA

OROIGARRIA

Feli
Zugazagoitia
Eguen

Ikastolako bazkide laguntzailea

Une latz hauetan Ikastolak bat egiten du familiaren saminarekin.



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

LIBURU-AURKEZPENA

SORBATZA

Markel Sanchez
eta Mireia Delgado

Ekainak 5, barikua.
19:00etan

hitz

artekalea 23. durango
946 830 776
info@hitzliburuzenda.com



INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA Barrenkalea, 15 beheko - DURANGO Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
 <p>C.E.E. =F 255.000 €</p>	<p>ETXEBIZITZAK SALGAI</p> <p>DURANGO ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.</p> <p>MONTEBIDEO Berriztatuko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.</p> <p>MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatuko.</p> <p>FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.</p> <p>GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.</p> <p>KURUTZIAGA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatuko.</p> <p>BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.</p> <p>IURRETA DANTZARI 3 logela. Argitsua. 145.000 €.</p>	 <p>C. E. E.: E. 148.000€</p>	<p>DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.</p> <p>BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F</p> <p>SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A</p> <p>ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E</p>
 <p>C.E.E= G 298.000 €</p>	<p>LURSAILAK SALGAI URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.</p> <p>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.</p> <p>IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatuko.</p> <p>ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.</p> <p>BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.</p> <p>MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p>	 <p>C. E. E.: E. 228.000€</p>	<p>ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharbertzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p>ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.</p>
 <p>C.E.E: F 195.000 €</p>	<p>BULEGOAK ALOKAIRUAN</p> <p>ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p>DURANGO ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p>	 <p>C. E. E.: Bidean. 140.000€</p>	<p>BERRIZ Bidegain kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean</p> <p>MURGOITIO AUZO: Berreraikitako baserria lurzoruaqaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €</p> <p>EITUA: Berreraikitako baserria lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p>
 <p>C.E.E=E 324.900 €</p>	<p>LOKALAK ALOKAIRUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.</p> <p>ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p>	 <p>C.E.E: G. 210.000 €</p>	<p>GARAI MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p>IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.</p> <p>MADALENOSTE: Garajea. 70 € / hilean.</p> <p>KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €.</p> <p>KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €.</p> <p>MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.</p>
 <p>C.E.E.= F 470.000€</p>	<p>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</p> <p>BERRIZ BERRIZ Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	 <p>C.E.E.=E 164.000 €</p>	<p>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E</p> <p>BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean.</p> <p>IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E</p> <p>KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala gutzit berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F</p> <p>SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F</p> <p>ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F</p> <p>ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. 250.000 €</p>
 <p>C.E.E.= F 470.000€</p>	<p>BERRIZ BERRIZ Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	 <p>C.E.E.=E 164.000 €</p>	<p>IURRETA ZUBIAURRE: 11 m2-ko lokala. 20.000 € negoziagarriak.</p> <p>ABADIÑO ELORRIAGAZAR: 444 m2-ko pabilioia. 180.000 € salgai / 1.000 € / hilean</p>

Txin txin



MARTA CALVO
LARRALDE

Diruaz hitz egitea txarto ikusita dago. Bada horrelako tabu bat gurean. Batzuek usteltzen duela diote. Besteek, poztasuna ematen duela.

Esaeraz aparte, maila ekonomikoaren eta osasun mentalaren arteko harremana zuzena dela adierazten dute ikerketek. Hau da, diruak osasun mentala eman eta kendu dezakeela.

Datuen arabera, pobrezia osasun mentala gaiztotzen du, eta gaixotasun mentalek prekaritate edota bazterketara bideratzen dute.

Pobre guztiak ez dira gaixoak, noski, eta gaixo guztiak ez dira pobreak. Baina harreman estu bat dago, elkarri eragiten diote. Batak bestea erakartzen du.

Desberdintasun sozial eta ekonomikoen arrakala handitzen doan honetan, gure gizartea gaixoak ekoizten dabilela esan dezakegu.

Baieztape gordinegia da agian, baina bota beharrekoa. Izan ere, joera hori eraldatzeko aukera dago, ez da patu bat.

Osasun mentaleko estrategiak diseinatzerakoan ezinbesteko lan lerroa litzateke pazienteen eta hiritarren diru-sarrerak eta bizi-baldintzak kontuan hartzea, ezta? Zoramena litzateke horiek hobetzen saiatzea?

Errezeta moduan etxebizitza epel bat, sendagai moduan soldata duina.

"Oso pozik gaude pintxo dueluan egindako lanagaz; hasieratik horixe zen helburua"

PETRI ESTUDILLO ETA IBAN RODRIGUEZ SUKALDARIAK

E.H. DURANGO

Durango Napar elkartearen pintxo dueluaren bigarren edizioa egin dute. Petri Estudillo Dominguez (Sevilla, 1984) eta Iban Rodriguez Pelardo (Durango, 1974) elkarren aurka lehiatu dira, Iker Mendieta eta Borja Berasaluze laguntzaile izan dituztela, hurrenez hurren. Laurek maila bikaina erakutsi zuten, puntu bakarreko aldea egon zen-eta azken emaitzan.

Duelu ezin parekatuagoa izan duzue. Pozik zaudete emaitzagaz?

Iban Rodriguez: Bai, baina emaitzak ez du ardura. Egindako lanagaz pozik egotea zen inportantea. Eta pozik gaude.

Petri Estudillo: Halaxe da! Duela hasi aurretik horixe zen helburua. Emaitza jakinda, ezin hobeto joan da dena. Oso pozik gaude egindako lanagaz.

Laguntzaile finak izan dituzue!

P.E.: Bai! Urduritasun puntua ere sortzen da eta.

I.R.: Bai. Hala ere, azkenean nahiko ondo ibili gara. Estres gehiago izango genuela pentsatzen nuen. Gainera, dena garbi-garbi mantendu dugu.

P.E.: Elkar ezagutzen dugunez, badakigu zelan lan egiten dugun, eta hori igartzen da.

Afaltiarren partetik, zelako feedback-a jaso zenuten?

P.E.: Oso ona! Pozik zeuden, eta eskertuta. Ia aurrerantzean gehiago animatzen diren dueluan parte hartzera!

I.R.: Bai. Gustura egon zirela esango nuke.



Petri Estudillo eta Iban Rodriguez, pintxo duelua amaitu eta gero.

Lan handia da?

I.R.: Gustuko tokian aldatsik ez! (barrez) Orain hilabete hasiko ginen prestaketa lanekin, probak egiten... Zeozer berezia egitea izaten da helburua, eta ahalegin hori egiten dugu. Batzuetan ondo irteten da, besteetan ez. Egindako bide hori ere polita da.

P.E.: Denbora asko eta buelta asko ematea eskatzen du. Lana da, baina merezi du!

I.R.: Gure onena eman gura izan dugu.

Zein pintxo aurkeztu duzue baikoitzak?

Motzean

Pintxo bat eta horregaz hartzeko edari bat?

P.E.: Gilda, bermutagaz.

I.R.: Patata tortilla on bat, ardo beltzagaz.

Patata tortilla, tipulagaz ala tipularik barik?

P.E.: Tipulagaz, mesedez.

I.R.: Tipulagaz, beti.

Gastronomia bat?

P.E.: Euskalduna.

I.R.: Euskalduna.

I.R.: Lehenengo, gazpatxo *trampantojo* bat egin nuen, xanpaina zirudien edaria aurkeztu nuen. Harrituta uztea zen asmoa. Horregaz, pikillo piperragaz egindako krema, berdel ondua, ziapea eta lore jangarriak aurkeztu nituen, hazidun ogi xerra batean zabaldua. Bigarrenari 'Pekatu kapitalak' deitu nion: edalontzi erakargarri eta sendoa hirugiharrez, marmeladaz, ondo risottoz, masail-okela xehatuz eta arrautza gorringoz beteta. Dena nahastuta jateko zen.

P.E.: Lehenengoan mazamorra, gelatina-ore bihurtutako laranja zukua, mahatsa, bakailaoa eta tipula ozpindua ipini nituen tosta batean, geruzarik geruza. Bigarrenean, Lumagorri oilasko hegaltxoak aurkeztu nituen, guakamole eta antxoekin betarik. Pasteltxo batek lagunduta zeuden. Pintxoak *cherry* tomate infusioan zuten, baita nire amak kozinatzen duen saltsa bat ere.

Batak bestearen pintxoak probatu zenituzten?

I.R.: Jakina!

P.E.: Talde lana izan zen. Baikoitzak berea egin arren, dena probatzen aritu ginen.

I.R.: Lehiaketa oso zintzoa izan zen, batak besteari iritzia ematen genion une oro.

Gomendiorik hurrengoentzat?

I.R.: Disfrutatzea, besterik ez! Probatzea eta arriskatzea.

P.E.: Horixe da osagairik garrantzitsua.

Zer ikasten da horrelako duelu batean?

I.R.: Ni neu pozarren joan nintzen etxera. Ez da erraza 35 laguntzat pintxoak prestatzea!

P.E.: Antolatzen, denbora eta aurrekontua kalkulatu. Erronka izan da. Beti dago zer ikasi. Oso gustura eta lasai egon ginen, hori ere ikasketak izan da.

PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateyexpe.com



